

BIZKAIKO EMAKUMEEN PARTAIDETZARAKO KONTSEILUA

Ohiko Batzarra 2023.11.18

Ordua: 10:00

Saioko parte-hartzaileak: 25 elkarte eta erakunde eta 39 ordezkari.

AED (on-line)	María Caballero
ALDAKETA FEMINISTA	Raquel Miragaya
ANDRA BARRIAK	Begoña Artegui
ASOCIACIÓN MATIZ	Irati Padilla
ASOCOLVAS	Alba Nury Orozco, Johana García
BIDEA EGINEZ ELKARTEA (on-line)	Estibaliz San Sebastián
BIZITU	Inmaculada Mata, Margarita Aguilar
EMAKUMEON INDARRA	Arantza Herce
ERAGIN	Eskar Larrínaga, Isabel Varela
ERLANTZA	Begoña Zarate, Micaela Aguilar
ESKUZ ESKUZ ABESBATZA (on-line)	M ^a Teresa
ETENGABE JABEKUNTZA	Esther González, Manuela Lopez
ETXEKO ANDRE	Berta Ibañez, Antonina Alonso
FAMEK	María Paz Obama Massigui, Marie Luia Monsheneke
FEKOOR	Sara Andrés
FORO AMAKUMEAK MEDIKUNTZAN	Lucía Gallego, Sandra Sánchez
GALTZAGORRI	Yolanda Jubeto
INURTXI	Pilar Sobera, Rosa Martín
MUJERES MIGRADAS EMPRENDEDORAS	Gladys Julia Reyes, Maylin Vergara
MUNDU BERRIAK	Jaione Valdés
NI NAIZ	Nerea Pascual, Lurdes Amigo
ONEKA	Mertxe Méndez, Itziar Lasuen
SARELILAK	Bego Izarra y Teresa Beitia
SIM ROMI	Keila Vizarraga, Soraya Motos
TRECE ROSAS ROJAS	Marisa Rodríguez

Era berean, Dulcina Pereirok eta Fermina Barrerok, Barakaldoko Alargunen Elkarteko (AMUVES) kideek ere parte hartuko dute batzarrean.

Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik:

- Berdintasuna Sustatzeko zuzendari nagusia eta Kontseiluko lehendakariordea, Patricia Campelo. Genero Politiketako Idazkaritza Teknikoa eta Kontseiluko Idazkaria, Cristina Sarduy.
- Berdintasuna Sustatzeko teknikaria, Ane Ortiz Ballesteros.
- Laguntza teknikoa (Equipare), Eva Sáenz de Ugarte eta Zuriñe Burgoa.

GAI-ZERRENDA

1. Ongietorria
2. Aurreko akta onestea.
3. Harrera-prozedura aurkeztea.
4. Kudeaketa Batzordeak eta Indarkeria Matxistaren Batzordeak 2023an egindakoa aurkeztea.
5. Genero-ikuspegia osasunean txertatzeari buruzko azalpena.
6. Talde-lana eta -eztabaida.
7. Atsedena
8. Partaidetza Soziopolitikorako Batzordeak egindako lanaren aurkezpena.
9. Sailaren antolaketa berriari buruzko informazioa.
10. Kudeaketa Batzordearen hausnarketa, lan-batzordeei buruzkoa.
11. Dinamika parte-hartzailea.
12. Bestelakoak.
13. Agurra eta itxiera.

1. Ongietorria

Mertxe Méndezek eta Itziar Lasuenek, Kontseiluko lehendakaritza duen ONEKA elkarteko kideek, ongietorria eman dute.

2. Aurreko Batzarreko akta berrestea

Aurreko batzarreko akta berretsi da.

3. Harrera-prozedura aurkeztea

13 Rosas Rojas elkarteko Marisak, Etengabeko Manuelak, Sim Romiko Sorayak eta Keylak eta Sare Lilak elkarteko Teresak harrera-prozedura aurkeztu dute.

Zergatik egiten den harrera-prozedura hau adieraztea: Kudeaketa Batzordean sortutako hausnarketa baten emaitza da, lan-batzordeetan eta Kudeaketa Batzordean sartzen diren elkarte batzuek Kontseilu honen alderdi garrantzitsuak ezagutzen ez dituztela antzeman baita.

Kudeaketa Batzordearen ustez garrantzitsua da elkarteekiko hurbiltasuna eta horregatik harrera informala egin nahi da saio batean. Bilera edo saio horretan hurbiletik eta modu eskuragarrian jakinaraziko da Kontseilua zer den, zertarako den eta nola funtzionatzen duen, eta elkarteek etorkizunean bertan parte hartzeari buruz izan ditzaketan zalantzak erantzungo dira.

Bilera hau urtarrilaren 29an egingo da, arratsaldean.

Batzarrean zehar izena emateko gonbitea luzatu diete elkartei, nahiz eta sartu berriak diren elkartei e-mailaz eta baita telefonoz ere gogoratuko zaien.

4. Kudeaketa Batzordeak 2023an egindakoa aurkeztea

Kudeaketa Batzordeak 2023an egindako lana aurkeztu da. Aurkezleak FEKOOReko Sara André eta ERLANTZako Bego Zarate izan dira.

Urtean zehar 9 bilera egin dira, eta abenduan egiten denarekin 10 izango dira.

Landu diren gaien artean honako hauek daude:

- Ohiko 2 batzarrak prestatzea eta baloratzea.
- Kontseilua ikusarazteko otsailean egindako jardunaldia prestatzea. Emakumeen Partaidetzako Kontseiluen Topaketa izan zen eta bertan mahai-inguru bat eta ondorengo eztabaida egin ziren. Mahaiari parte hartu zuten Bartzelonako eta Valentziako Kontseiluek, GUNEAK, Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetza eta elkarriketarako guneak, eta Bizkaiko Emakumeen Partaidetza Kontseiluak berak.
- 2 lan-batzordeen jarraipena. Ildo horretatik lantalde hauen jarduera sustatzeko beharri buruzko gogoetarako gune bat ezarri da. Batzar honetan geroago, atsedenaldiaren ondoren, Kudeaketa Batzordeko kidea den Bego Izarrak hausnarketa horren berri emango du.
- Azaldu den bezala, Kontseiluan sartzen diren elkarte berriei harrera egiteko beharra ere identifikatu da. Eta, azkenik, auto-antolaketa dokumentua berrikusten hasi gara, baliagarriagoa izan dadin eta Kontseilu honen beharretara hobeto egokitu dadin.

Indarkeriaren Batzordearen aurkezpena

EMAKUMEON INDARRA elkarteko Arantza Hercek Indarkeria Batzordeak egindako lana aurkeztu du.

Ekainean egindako batzarrean indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak artatzen dituzten foru zerbitzuen jarraipenaren inguruan egiten ari ginen lanaren berri eman zen. Gaur egun kontratatutako erakundearekin bilera bat egiteko zain daude, arreta juridikoko zerbitzua garatzeko. Gainera dagoeneko eman dizkiete balorazio-galdetegiak, eta abenduko hurrengo bileran horien azterketa egingo dute, hobekuntzak sartzeko.

Aurten, halaber, lan bat egin da indarkeria matxistaren biktima diren emakumeek jarrai ditzaketen ibilbideak erakusten dituen balizko liburuxka bat egiteko. Elkarrekin eraikiz joan diren ideiek aukera eman dute ekainerako zirriborro proposamen bat izateko. Zirriborroaren proposamen hori emakume gazteen, emakume afrikarren eta emakume ijitoen hainbat erakunderekin kontrastatu da, baliabide horrek izan lezakeen baliagarritasun-maila baloratzearen ondoretarako.

Jakinarazten dute, halaber, datorren ostegunean, azaroaren 23an, 17:00etan, Indarkeria Matxistaren Behatokiaren aurkezpena egingo dela, eta behatokiaren helburuak eta funtzionamendua zeintzuk diren azaldu da, bai eta zein informaziotara jo daitezkeen beren webgunearen bidez, 2022ko datu berriak ere sartuta. Kontseiluak elkarte guztiak gonbidatzen ditu parte hartzera, eta azaltzen du Edukiera eta leku arrazoiengatik posta elektronikoz helarazitako galdetegia bete beharko dutela.

Barkamena eskatzen da datagatik, aste zailak baitira elkarte askorentzat, eta azaldu da ez zegoela beste aukerarik.

5. Genero-ikuspegia osasunean txertatzeari buruzko azalpena (EMAKUMEAK MEDIKUNTZAN FOROA) eta ondorengo eztabaida eta talde-lana.

ONEKako Itziar Lasuenek hizlariak-txostengileak aurkeztu ditu:

Lucía Gallego Andrés Medikuntza eta Kirurgian lizentziatua da, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakaslea eta ikertzailea. Sandra Sánchez Urtaza Biologian graduatua da Bartzelonako Unibertsitatean eta Immunologian, Mikrobiologian eta Parasitologian doktorea UPV/EHU.

Biak Emakumeak Medikuntzan Foroko kideak dira. Elkarre hori Kontseilu honetako kide da 2022tik. Lucia elkarteko presidentea da, eta Sandra Zuzendaritza Batzordeko kide eta webguneko edukien arduraduna da.

Elkarrearen parte gisa ikerketa-proiektuetan eta kongresuetan parte hartzen dute eta Bizkaiko Sendagileen Elkargoarekin batera egindako "Somos diferentes frente al Infarto de Miocardio-Desberdinak gara Miokardioko Infartuaren aurrean" bezalako kanpainak bultzatzen dituzte. Lucia unibertsitate-eremuan genero-indarkeria desagerrarazteko METOO mugimenduko kide da, eta Sandrak Inspiring Girls ekimenean parte hartzen du; ekimen horren bidez neskek emakume erreferenteekin konektatu nahi dira neska horiek inspiratzeko, motibatuzeko eta genero-oztopoak eraisteko.

PPT erantsi da, erakusketa osoarekin.

6. Talde-lana

Parte-hartzaileak 4 taldetan banatu dira eta honako hausnerketa hauek jaso dira:

Tratu desberdina sentitu al duzue mediku-kontsultetan emakumeak izateagatik? Eta emakumeak eta adinekoak, migratuak, desgaituak, gazteak izateagatik?

- Isuri heteronormatiboa. Sexu-orientazioa, lesbiana izatea, diskriminazio-faktore gisa. Batez ere sexu-osasuna ugalketa-alderdiari lotzen zaiolako bereziki.
- Gainmedikazioa eta diagnostikoen atzerapena. Emakume batzuek alternatibak bilatzen dituzte homeopatia, fisioterapia eta abarrekin, eta horrek esan nahi du bakarrik egin dezaketela baliabide ekonomikoak dituzten emakumeek.
- Karga emozionalak sintomatologian duen eragina ez ulertzea.
- Emakumeen mina normalizatzea, minimizatzea eta gutxiestea.
- Konexioa ukatzea.
- Bakoitza agentzia-gaitasuna ez onartzea beti medikuntza alopatikoaren jarraibideekin bat ez datozen erabakiak hartzeko.
- Tratamenduen arriskuei buruzko informaziorik eza.
- Infradiagnostikoak, gaixotasun berari dagokionez emakumeen eta gizonen sintomen arteko desberdintasunei buruzko ezagutzarik ezagatik, eta emakumeen sintomatologiari buruzko ezjakintasun espezifikogatik.
- Proba gutxiago agintzen dituzte eta errehabilitaziora gutxiago bidaltzen dira.
- Probatan etxetik kanpo lan egiten duten pertsonak etxean lan egiten dutenak eta/edo zaintzaile gisa lan egiten dutenak baino lehenestea, betiere kontuan hartuta horietatik gehienak emakumeak direla.
- Batez ere emakumei zuzendutako probak oso inbaditzaileak eta mingarriak dira, mamografiekin edo zitologiek gertatzen den bezala, eta ez da arazo hori aldatzeko ahaleginik sumatzen.
- Fibromialgia edukitzea eta 5 urte igaro arte ez diagnostikatzea. Prozesuan ia enpatiarik ez sentitzea arretan eta apur bat erotuta egotearen sentsazioa.
- Ginekologiako arreta urria eta ez oso indibidualizatua izatea. Nolako izango litzateke arreta hori erabiltzaileak gizonak balira?
 - Tratamendu oldarkorrek (umetokia erauztea, etab.), ugalketarekin lotutako gaiak soilik kontuan hartzen dituztenak.
- Mamografiak eragindako min-kexen aurrean, kosifikazioa eta ulermenik eza.
- Sexu-abusua.
- Adineko emakumea izateagatik edo edadismoagatik diskriminatzea:
 - Osasun-langileek ez ulertzea, askotan, haien sintomak eta min-adierazpenak gutxiesten baitituzte.
 - Arretarik eza, ahalegin terapeutiko gutxi edo batere ez.

- Artritis erreumatoidea eta artrosia pairatzea eta diagnostikatzerakoan kontuan ez hartzea, adinaren arazo gisa soilik tratatzea.
 - Erne eta diagnostikoaren zain egon behar dela sentitzea, adinaren arazoa izan daitekeelako edo benetan patologia izan daitekeelako. Gaitzak minimizatu egiten dira adinekoa izateagatik.
 - Medikuek tratu paternalista ematea
- Emakume gaztea izateagatik:
 - Sintomei garrantzi gutxiago ematea.
 - Emakume migratuak:
 - Hizkuntzarekin arazoak, nahiz eta itzultzen laguntzen duen programa bat dagoen, profesionalak ez dute beti erabiltzen.
 - Profesional batzuek uste izatea emakumeak kezakera joaten direla kontsultara eta, beraz, diagnostikoan behar den bezala ez dela ikertzea.
 - In vitro ernalketa-prozesuei buruzko informazio eskasa. Horrek esan nahi du emakume migratu gehiagok zailtasun ekonomikoak eta osasun-arazoak dituztela ernalketa-arazoengatik.
 - Osasun-zerbitzuetara iristeko oztopoak.
 - Tratu-isuria klasearen eta arrazaren arabera.
 - Prozesu psikosozialen ondoriozko arretarik eza
 - Emakume ijitoak:
 - Tratu desberdina eta arreta txarra.
 - Ijito-kultura eta kontsultetan bestelako tratua behar duten alderdiak (ginekologikoak, adibidez) ez ezagutzea eta aintzat ez hartzea.
 - Ezin zen baginako esku-hartzerik egin ezkondu arte birjina mantendu behar zirelako. Erantzuna: epaiketa eta alternatibarik eza
 - Desgaitasuna duten emakumeak:
 - Epai morala, desgaitasunen bat izanda ama izateagatik.
 - Biktimizazioa. Begirada paternalista, errukitik.
 - Solaskide baliodun eta gai gisa ez aitortzea. Ez dute zuregana jotzen edo ez dizute informazio guztia ematen.
 - Desgaitasuna duten emakumeen sexualitatea ikusezin bihurtzea.
 - Desgaitasunen bat duten emakumeentzako osasun-probak eta -altzariak eskuragarri ez izatea eta egokitzea (adibidez: zitologiaren azterketa-aulkiak)
 - Zentro medikoetarako irisgarritasunik eza.

Zer aldatuko zenuke normalean jasotzen duzun arreta medikoan? Nola eragin daiteke emakumeak desberdintasun hori gabe entzun eta artatuak izan daitezen?

- Diskriminazioa agerian jartzea.
- Entzuteko espazioak bideratzea, tratu hobea, jarrera hobea eta proba medikoak azkar egitea.
- Diagnostiko-proba gehiago egitea eta diagnostikoari denbora gehiago ematea, diagnostiko okerrak eta psikofarmakoekin egiten den gainmedikazioa saihesteko.
- Emakumeentzat hain inbaditzaileak ez diren eta hain mingarriak ez diren proba diagnostikoak.
- Adineko emakumeen bizi-kalitatea hobetzen duten probak eta tratamenduak.
- Elkarteen, erakundeen eta abarren artean aliantzak sortzea, aldaketa lortzeko.
- Emakumeen elkarteak batzea eta mobilizatzea, eta batzordeak sortzea, Kontseiluan problematikari heltzeko.
- Profesionalak genero-ikuspegian prestatzea (ez osasun-langileak bakarrik, baita administrazio-langileak ere, eta gauza bera baita unibertsitate-eremuan).
- Unibertsitate-curriculumean genero-ikuspegia modu integralean zeharkatzea.
- Osasun-langileak indarkeriarik gabeko komunikazioan eta pazienteekiko enpatian prestatzea eta sentsibilizatzea.

- Kultura- eta erlijio-aniztasunari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa, eta esku hartzeko beste modu batzuk behar dituzten kasuetarako estrategiak eta protokoloak diseinatzea.
- Ikerketa- eta osasun-arretako protokoloak hobetzea eta aldatzea, genero-ikuspegia barne.
- Pazienteen agentzia-gaitasuna ezagutzea.
- Emakumeak sentsibilizatzea genero-ikuspegidun arreta eskatu ahal izateko (kanpainen, hitzaldien eta abarren bidez).
- Ikastetxeetan eta anbulatorioetan psikologoaren giza baliabideak handitzea.
- Desgaitasunari buruzko sentsibilizazioa.
- Emakumeak prestatzea eta kontzientziatzea paziente gisa dituzten eskubideak ezagutu ditzaten eta eskubide horiek exijitu eta jardun ahal izan dezaten.
- Kexak eta erreklamazioak idaztea, profesional-aldaketa eskatzea arrazoi hori argudiatuz.
- Diagnostikoan edo tratamenduan genero-ikuspegia kontuan hartu ez izanaren ondoriozko kaltea zabarkeria medikotzat har dadin bultzatzea, garrantzi handiagoa emateko eta profesionalak kontuan har dezaten.
- Ikerketa medikoa gizarte-esparrura hurbiltzea, errealitatera hurbiltzeko.
- Indarkeria obstetrikoren existentziaren aintzatespena eta ikusgarritasuna bultzatzea.
- Emakumeen autozainketa bultzatzea, genero-jauziaren jarraibide horiek kontuan hartuta, eta, gainera, emakumeen eskubideen ezagutza eta aldarrikapena bultzatzeko.
- Osasun-gune guztien irisgarritasuna bermatzea

7. Partaidetza Soziopolitikorako Batzordeak egindako lanaren aurkezpena: emakumeen elkarreentzako dirulaguntzen dekretu berrirako proposamenak.

MATIZ elkarteko Irati Padillak eta ERAGINeko Isabel Varelak Partaidetza Soziopolitikorako Batzordearen lana aurkeztu dute

Ekainetik azarora, baterako lan-prozesua gin da emakumeen elkarreentzako eta erakunde mistoentzako dirulaguntzei buruzko foru dekretua aztertzeko eta, horrela, zailtasun nagusiak identifikatzeko eta hobetzeko proposamenak sortzeko.

Elkarte guztietan egindako lana eta batzordean elkarrekin garatutako eztabaida balioetsi nahi dira. Ikaskuntza-prozesua izan dela ere nabarmentzen dute.

Lau saio hauek erraztu egin dute Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekiko komunikazioa etengabekoa izatea eta horri esker ikusi ahal izan da Aldundiak interesa duela dekretuan aldaketak sustatzeko, emakumeen elkarten eta erakunde mistoen beharrak kontuan hartuko dituztenak.

Hala ere badakite proposamen guztiak ezin izango direla gauzatu; izan ere, baliteke proposamen horietako batzuek indarrean dagoen araudia ez hartzea edo betetzea, edo beharrezkoak diren eskumenak BFArenak ez izatea, etab. Hala ere, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzak bere baliabideak baloratu eta abiaraziko ditu prozesuan zehar jasotako ekarpenak sartu ahal izateko.

Jarraian, proiektu bat egiteko ataletan identifikatu diren proposamen garrantzitsuenak partekatzen dituzte.

1. Helburu eraldatzaile eta berritzaileak diseinatzeko hautemandako zailtasuna dela eta, udalerriko beste espazio batzuetan parte hartzea eta/edo beste eragile batzuekin sareak eta aliantzak izatea proposatzen da, errealitatea hobeto ezagutzeko eta helburu eraldatzaileagoak planteatzeko.
2. Eragina izango dugun lekua identifikatzea, betiere kontuan hartuta garrantzitsua dela Bilbotik irtetea eta normalean iristen ez diren eremuetara iristea.
3. Irizpide gisa, emakumeen interseksionalitatea kontuan hartzea.
4. Langileei zuzendutako aurrekontuaren % 10 ez da nahikoa izaten erakundeko taldeak proiektua gara dezan. Kanpotik kontratatzea behartzen gaitu eta, horregatik, aurrekontuan langile propioentzat baimendutako ehuneko hori handitzea proposatzen da.
5. Hezkuntza-eremu formalean sartu ezin izateak proiektua pentsatzea zailtzen die zenbait erakunderi, eta, beraz, eremu formalean hezkuntza-proiektuak ahalbidetzea planteatzen da.
6. Bi aurkezpen desberdin egitea, bata emakumeen elkarreentzat eta bestea erakunde mistoentzat.

Proiektua idazterakoan kontuan hartu beharreko proposamenak:

1. Hitz-kopuruari mugarik ez jartzea, baina gutxi gorabeherako kopurua eskaintzea.
2. Ikuspegi interseksionala, alderdi berritzaileak edo helburu eta ekintza berritzaileen diseinua txertatzeko zailtasuna.
3. Zuzendaritzak laguntza ematea proposatzen da, gai hauei buruz gaituta: proiektuen formulazioa, proiektuen ebaluazioa, proiektuaren eragina neurtuko duten adierazleen diseinua, interseksionalitatea, alderdi berritzaileak eta/edo Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzatik tutoretza-bideo bat edo edukiak hurbilduko dituen gida bat bultzatzea.
4. Erakunde publikoen formularioen bateratzea sustatzea (udalerrria, aldundia, EMAKUNDE), deialdi guztiak desberdina izateak zaildu egiten baitu haien ulermena.
5. Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren batzarretan egin ohi den esperientzia-trukean alderdi berritzaileak identifikatzea.

Proiektua izapidetzean kontuan hartu beharreko proposamenak:

Proiektua egoitza elektronikoan entregatzean sortzen diren arazo elektronikoekin lotutako zailtasunak jasotzen dira.

1. Bidaltzeko eta jasotzeko plataforma hobetzea.
2. Jaso izanaren agiria edukitzea.
3. Kudeaketa laguntza teknikoarekin erraztea. Egoitza elektronikoko zerbitzua eskaintzea Kontseilutik, ez dakiten edo ez duten elkarreentzat.
4. Beste aukera bat eskaintzea ezagutzarik ez dutela edo eskabidea bide horretatik aurkezteko baliabiderik ez dutela egiaztatzen duten elkarreentzat.
5. Izapidearen zein fasetan dagoen jakinaraztea, proiektua noiz has daitekeen jakiteko.
6. Web orria hobetzea deialdiaren bilaketa errazteko.

Garatzeko, justifikatzeko eta ebaluatzeko orduan kontuan hartu beharreko proposamenak:

1. Ordainketak berandutzeagatik sortzen diren zailtasunak jasotzen dira, eta, beraz, horiek bizkortzea proposatzen da.
2. Zailtasun handienetako bat erakundearen ekarpen ekonomikoaren % 100 justifikatu behar izatea da, Aldundiari eskatutako zenbatekoaren % 100 ematen ez zaionean.

3. % 100 eskatzeko aukera edo, hala badagokio, kofinantzaketa eskatzeko aukera, eta erantzukizunpeko adierazpenaren bidez eta fakturarik eman gabe justifikatu ahal izatea. Kofinantzaketarik ez badago, proiektua birformulatzeko aukera.
4. Hainbat dirulaguntza ildo ezartzea, ekimen-tipologiaren arabera, adibidez, prozesua den, jarduera puntualagoa den, etab.
5. Proiektuen ebaluazioari buruzko gaikuntza, proiektuaren eragina neurtuko duten adierazleak diseinatzea barne.

Oro har irisgarritasuna hobetzeko proposamenak:

1. Prozesuan erabilitako hizkuntza oso formala dela identifikatzen da, eta baliteke pertsona batzuek hizkuntza hori osorik edo zati batean ez ulertzea.
2. Hori dela eta, dokumentua hizkuntza errazago batean idatzi ahal izatea planteatzen da, terminoen glosarioa barne, edo, are gehiago, material erantsi bat egin ahal izatea irakurketa errazeko irizpideekin.
3. Dekretuaren deskribapen laburtuari zabalkunde handiagoa ematea.
4. Bi aurkezpen desberdin egitea, bata emakumeen elkarreentzat eta bestea erakunde mistoentzat.
5. Partaidetzako Lantaldeak zalantza-postontzia jartzea elkarte edo erakundeen eskura.
6. Trebakuntza eskaintzea.

Amaitzeko, Batzordeak adierazten du parte-hartze eta talde lana egin dela, hasiera batean oso zaila ematen zuela eta prozesua izan dela, eta Equipareko Evak ekarri eta garatutako tresna eta dinamikei esker prozesu emankorra izan dela, eta oso pozik eta asebeteta daudela.

Ane Ortizek gogorarazten du ekarpen gehiago jaso daitezkeela emakumeenkontseilua@bizkaia.eus posta elektronikoa bidez, eta datozen bi asteetan egin behar direla proposamen orokorrean sartu ahal izateko.

8. Sailaren antolaketa berriari buruzko informazioa

Patricia Campelok, Berdintasuna Sustatzeko zuzendari nagusiak, eta Kontseiluko lehendakariordeak 2023-2027 legegintzaldirako Sailaren antolaketa berriaren ezaugarriak azaldu dituzte.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailean aldaketa garrantzitsuak daudela azaldu du.

Aldaketa nabarmenena sailaren izena bera da. Inklusio terminoa ezarri beharrean orain kohesioa hitza ezartzen da.

Egitura-aldaketa handirik ez badago ere, badira sailari zuzenean eragiten dioten gai batzuk. Horietako bat da lehen aldiz emakume bat dela Ahaldun Nagusia, bai eta bi diputatu nagusiorde ere. Horietako bat, Teresa la Espada, Berdintasuna Sustatzeko diputatua da, eta gobernuko bigarren diputatuordea ere bada. Baina emakumeak egoteaz gain, jarrera feminista duten emakumeak ere egon behar direla adierazten du, eta Sailak ildo horretan urratsak emateko lanean jarraitzen duela azaltzen du.

4 zuzendaritzak mantentzen dira, baina orain horietako batzuek "adar" berriren bat dute:

1. Gizarte Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza (zuzendaria: Oscar Seco)
 - a. Inklusioa: etxerik gabeko pertsonak, balarrrik dauden gazteak.
 - b. Emakumeak, Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua (denbora daramagu izena aldatu nahian eta ildo horretatik aldatetak egotea itxaroren da).
2. Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza (zuzendaria: Susana González Rómulo)
 - a. Enplegua: enplegurako aktibazioa (kolektibo jakin batzuen, birziklapena, etab.) (enplegu-agentzia elkartua DEMA da, eta beste foru-enpresa txiki bat sartu da, enplegutik egiten den lanari laguntzen dion ekintzazailtza-proiektuetarako finantza-gaiez arduratzen dena).
 - b. Zerbitzu Orokorrak: dekretuak, ordainketak eta abar aurrera eramateko laguntza.

3. Gizarte Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
 - a) Garapenerako lankidetzak. Jatorrizko herrialdean egiten diren programekin.
 - b) Aniztasuna.
 - c) (berria) Bakardadea eta Ekintza Komunitarioa.
 - d) (berria) Gazteak.

Berdintasuna Sustatzeko Sailaren egitura:

- Berdintasuneko 7 teknikari, emakumezkoak (dagoeneko plaza finkoarekin sartu dira. Hori garrantzitsua da epe luzeko lanerako).
- 3 administrari, emakumezkoak.
- Teknikari juridiko 1, emakumezkoa.
- Arduradun tekniko 1 (Kristina).
- Arduradun politiko 1 (Patricia).

Jarduketa-eremuak:

- Zeharkakotasuna.
- Indarkeria matxista (Udalak, tokiko sarea...).
- Elkartek eta erakundeak (elkarkei eta erakundeei buruzko Dekretua; elkarkei dinamizatzeko guneak, hala nola Bizitzen edo Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua)
- Udalak.
- Sentsibilizazioa.
- Beste batzuk.

Parte-hartzaileen galderak:

1. Berdintasunaren esparruan indarkeria matxistarena agertzen da. Kontseilu honetan indarkeria matxistaren lantalde bat dago. Ezin al dira lotu? Bikoiztasunik sortzen al da? Edo lantaldearen lana Aldundiaren esparru horretara iristeko moduren bat sor al daiteke?

Patriciak adierazten du lantaldea autonomia dela eta berak erabaki behar duela non jarri fokua eta zein den bere lan-bidea. Aldundiak uste du ez duela lan hori mugatu edo baldintzatu behar, autonomia izaten jarraitu behar duela uste du.

Cristinak, halaber, hilaren 23an parte hartzeko gonbidapena egiten du, sailak indarkeria matxistaren arlo honetan egiten duen lana sakonago ezagutzeko aukera bat delako. Adierazten duenez ezinbestekoa da gauzak bata bestearekin gainjartzea, baina egun hauetan zalantzak argitu daitezke.

2. Biktinek gizarte-zerbitzuetatik igaro behar dutenean auzokoen aldetik birbiktimizazioa gertatzen da. Batez ere udalerririk txikietan. Formulak bilatu behar dira emakumeek beste herri batzuetako gizarte-zerbitzuetara joan ahal izan dezaten, non beren pribatutasuna eta intimitatea ziurta dezaketen.

Patriciak zeintzuk diren erreklamazioak eta proposamenak egiteko bideak argitzen ditu, eta eurek jasotzen dutela horretarako prestatuta dauden gune horietatik helarazteko erantzukizuna. Arreta ez dago euren esku, horregatik, oraintxe bertan ezin zaio galdera horri erantzun.

3. Indarkeria matxistaz ari gara, baina sentsibilizazioa baino ez da aipatzen, arreta beste alde batean dagoelako. Argitu diezagukezue zatiketa horien zergatia? Izan ere, gaia lantzen duten elkarte gisa batzuetan ez dakigu zer ate jo behar dugun.

Patriciak argitzen du zerikusia duela Aldundiak berak arloak eta zerbitzuak antolatzeko duen moduarekin. Lurralde batzuetan arlo guztiak lotuta daude, baina Bizkaian arreta ez dago Berdintasuna Sustatzeko Sailaren barruan.

Egia da kanpotik zailtasunak sor ditzakeela. Horrek guztiak zerikusia du Aldundiaren beraren antolaketa politiko instituzionalaren herentziarekin berarekin. Aurten izena aldatu ahal izan dugu, baina egitura horrekin jarraitzen dugu. Ez dakigu etorkizunean aldatu ahal izango den.

Ahal den neurrian errealitate hori hurbilduko dizuegu, eta Kontseilutik gaia koordinatzeko lan egingo dugu. Historikoki, batez ere azken hilabeteetan, indarkeriaren eta berdintasunaren arteko koordinazio handiagoa sortu dugu prebentzioaren gaiarekin, eta hori pixkanaka sendotzen ari da. Gizarte Ekintzarekiko harremana zertxobait urrunago dago. Aurrerapen positibo gisa gaur egun lortu da zeharkakotasunari dagokionez Gizarte Ekintzan berdintasun-teknikari bat egotea, eta espero dugu hori aldaketetan islatzea, arloen arteko koordinazio hori hobetzeko eta bidea irekitzen joateko. Ogasunean ere gauza bera gertatzen da; sail horretan emakumezko beste teknikari bat sartu da. Gure nahia da emakume teknikariak sail gehiagotan sartzen jarraitzea, baina hori da egungo errealitatea.

4. Guk egin genezake zerbait Kontseilu gisa hobetzeko?

Patriciak adierazten du Aldundia Kontseiluaren esanetara dagoela Kontseiluak berak egiten dituen proposamenak entzuteko.

5. Bigarren iruzkinari/galderari dagokion zehaztapena.

Udalerrietan iristeko bide bakarra ez dira gizarte zerbitzuak, eta anonimotasuna gordetzeko bidea osasun-zentroa ere izan daiteke. Egiten ari garen lana balioztatu nahi nuen, iristeko bide bakarra dagoela pentsa ez dezaten.

9. Kudeaketa Batzordearen hausnarketa, lan-batzordeei buruzkoa

SARELILAK elkarteko Bego Izarrak Kudeaketa Batzordeak lan-batzordeei buruz egindako gogoetak azaltzen ditu:

Gaur egun bi lan-batzorde daude. Bilerak hilero egiten dira, 10 saio urtean, hilean 1 alegia, udako bi hilabeteak kenduta. Bilerak ostegun arratsalde egiten dira eta 2 ordu izaten dira saio bakoitzeko. Equipare-ren idazkaritza teknikoaren laguntzarekin egiten dira eta Aldundiaren, Ane eta Patricia ordezkakuta, babesa dute.

Batzarretan lankideek edukiak/emaitzak azaldu dituzte. Orain, lanarekin nola jarraitu hausnartzeko garaia da.

Gogoeta batzuk:

- Elkarre askok ez dute lantaldeetan parte hartu.
- Lantaldeetan parte hartzen duten pertsona asko pertsona berak dira bietan.
- Kudeaketa Batzordeko kide askok bi lantaldeetan parte hartzen dute. Azpimarratzekoa da pertsona horien prestasuna.
- Kontseiluak dagoeneko 6 Batzar izan ditu. Proposamen, iradokizun, konponbide eta abar ugari jaso dira. Aurreko Batzarrean, adibidez, eragin politikoa nola egin aipatzen zen. Kontseiluko elkarten erdiek (gutxi gorabeherako datua) lantaldeetan parte hartzen ez badute, agian pentsatu beharko dugu zerk motibatuko lituzkeen elkarteak gehiago parte hartzeko. Parte hartzera animatzea da oinarritzko asmoa.

- Lantaldeok denbora jakin edo luze batean garatu ahal izango ditugun helburu zehatzei erreparatu beharko genieke, horrek eragin zehatza izan dezan. Ez da beharrezkoa taldeak betikotzea; ordezkatu edo zabaldu egin daitezke. Horrela elkarte guztiek aldi batez parte hartu ahal izatea erraztuko genuke..
- Gaur egun idazkaritza teknikoak denean laguntzen du (aktak, gai-zerrenda), baina horrek ez du esan nahi une jakin batean taldeak autonomoak izan daitezkeenik.

Laburbilduz, 3 urte igaro ondoren galdera bat egiten dizuegu: zer egin duzue elkarteek Kontseiluari talde espezifikotan lan egiteko proposamen zehatzak egin ahal izateko?

Ahalik eta gauza zehatzenak bilatzen ditugu. Ahalduzuearekin, intzidentziarekin eta abarrekin zerikusia duten gaien helburu zehatzera biltzen diren proposamenak. Elkarte guztietara iristen diren gaiak, parte hartu ahal izan dezaten.

Jokatzekeo bi modu daude, esku-hartzearen behatzailea izatea edo eragile aktiboa izatea.

10. Dinamika parte-hartzailea

Hasiera batean talde txikietan parte hartzeko dinamika planteatu zen, baina, denborarik ez dagoenez, hurrengo galdera modu irekian planteatzen da, elkarteek ekarpenak egin ditzaten.

Zuen ustez, zein gai da garrantzitsua, eta, gainera, batzorde batean lan egiteko parte hartzerantz animatuko zintuzketena?

ASOCOLVAS:

Ikuspegi interseksionala areagotzea.
Emakume migratuen errealitatea hobeto ezagutzea.
Mendekotasun emozionala eta indarkeria matxista.

FORO EMAKUMEAK MEDIKUNTZAN

Osasunean genero-ikuspegia txertatzea. Adibidez, erakundeei zuzendutako dokumentu bat eginez, kontuan hartu beharreko irizpideak eta gomendioak erakusteko. Gizartea kontzientziatzeko kanpainak ere bultzatzea.

ERAGIN:

Emakumeen elkartegintza bultzatzea.
Emakumeen elkarteak indartzea.
Ahalduzue indibidualko (lidergoen lan praktikoa) eta kolektiboko estrategia.

ETXEKO ANDRE:

Adineko emakumeen ahalduzuearen ideia indartzen du.

ANDRA BARRIAK:

Bakoitzari gertatzen zaionari kontzientzia jartzeko behararen ideia indartzen du, gero emakumeen arteko antolaketa lortzeko.

MUJERES VIUDAS DE BARAKALDO:

Bakardadea.

FEKOOR eta ETENGABE

Hezkidetza bultzatzea, indarkeria matxista prebenitzeko eta haurtzarotik berdintasuna lantzen hasteko. Adibidez, institutueta protokoloak bultzatuz.

11. Bestelakoak

Patriciak aurrekontua azaldu du sailari buruzko hasierako informazio hori osatzeko.

Azaltzen du une honetan 2024ko aurrekontuak eztabaidatzen ari direla Batzar Nagusietan, eta, beraz, ezin direla batzarrean aurkeztu. Ziurrenik abendurako onartuko dira. Informazio guztia Aldundiaren webgunean dago.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailak 2023ko aurrekontua du gaur egun, eta aldaketa gutxi aurreikusten dira. Kopurua aldatzen da, baina termino erlatiboetan gauza bera izango da gutxi gorabehera.

Aldundiaren aurrekontu osoaren % 5 da, gutxi gorabehera.

Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren aurrekontua 3.200.000 €-koa da 2023rako, eta 2024rako antzekoa izango da gutxi gorabehera.

Elkarte eta erakundeentzako partidak (bertan sartzen dira elkarte eta erakundeen dekretua, eraldatzaileen dekretua...) 1.159.000 € ditu.

Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluak 77.602 € ditu, eta munta horretan sartzen dira jardunaldien gastuak, laguntza teknikoa, Bizitzen-en dinamizazioa, etab.

2024rako ez da aldaketa handirik izango, ezustekorik ezean. Bide beretik jarraituko dugu. Eraldatzaileen dekretua errepikatuko dugu.

Galderen txanda

Non sartzen da Emakumeak Kongresua?

Patriciak erantzuten du sentsibilizazio-partida bat dela. Legealdi honetan Emakumeak programak aurrera jarraitzen du, eta marka handiko estrategia gisa hartzen da; dagoeneko jarduerak programatzen ari gara. Web orriak funtzionatzen jarraitzen du eta dagoeneko jarduera berriak txertatzen ditu. Batzuk dagoeneko egin dira.

Ondorengo jardueretako batzuk aipatzearen "Artea eta feminismoa" dugu. Izen-ematea zabalik dago eta posta elektronikoz bidali zaie elkarteei. 2023ko abenduaren 12an izango da.

Otsailean sukaldaritzako emakumeen dokumental bat proiektatuko da. Oraindik ez dago iragarrita.

Aldi berean Arte Ederren Museoarekin lanean ari gara genero-ikuspegiarekin egiten diren jardura guztiei buruzko informazioa zabaltzeko (bisita gidatuak, etab.). Informazio hori elkarteei newsletter baten bidez helaraziko zaie, izena eman ahal izan dezaten.

Beste jardura bat, Laura Freixasekin, 4 saioko jardunaldi batzuk dira otsailean eta martxoan, "Genios y Genias" izenburupean, eta eduki oso iradokitzailea dute, Emakumeak ekimenaren esparruan txertatzen dena.

Kongresua bi urtean behin edo lau urtean barru egingo duzue?

Patriciak erantzuten du ziurrenik legegintzaldi honen amaieran errepikatuko dela. Bien bitartean etengabeko jarduerak egingo dira urte osoan zehar, Emakumeak programa sentsibilizazio horretarako esparru eta testuinguru gisa geratzen baita.

Kontseilua gonbidatzen du interes zehatzen proposamenak egitera, mintzaldi, antzerki, erakusketa, zine-forum, eztabaida eta abarren formatua izan dezaketenak, hau da, proposa daitezkeen formatu berriak.

Proposamena:

Elkarteentzat interesgarria eta oso baliagarria izango litzateke ostean elkarteetako bazkideak sareetan birbidal ditzaketen dokumentalak bidaltzea. Aurrez aurre elkartzeko zailtasuna kontuan hartuta sentibilizaziorako tresna baliagarria izan daiteke.

12. Agurra eta itxiera

ETENGABE JABEKUNTZA elkarteko Manuelak saioari amaiera emateko eskerrak eman dizkie bertaratutakoei eta historian zehar eraldatzen lagundu duten emakume isilduei.

Adierazten du orain ematen ditugun urratsak etorkizuneko emakumeentzako herentzia izango direla, eta zorionak eman dizkie bertaratutakoei egindako lanagatik, eta erakundeen babesa eskertu du.

Amaitzeko esaten du agurra egin eta transmititu nahi ditugun ideia guztien hasiera berria dela.